

Laudio, 2022ko otsailaren 7an

Laudioko Udalak abian jarri ditu udalerriko gazteei zuzendutako kontratazio-zerrendak

Guztira, hiru prozesu gauzatuko dira: bat administrarentzat, beste bat peoi espezialistentzat eta beste bat mendeko langileentzat

Laudioko Udalak joan den ostiralean onartu zuen hiru kontratazio-zerrenda abian jartzea, datozen urteetan administrazioan bertan sortuko diren lan-premia puntualak betetzeko.

Zerrenda horiek udalerriko gazteengan jartzen dute arreta. Izan ere, izena eman nahi duten pertsonak 35 urtetik beherakoak izan, Lanbiden enplegu-eskatzaile gisa alta emanda egon, Laudion bizi eta prozesu bakoitzean ezartzen diren titulazio- eta euskara-baldintzak bete beharko dituzte. Inskripzioak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bitartez egin beharko dira. Zerrenda datozen egunetan argitaratuko da, eta izena emateko epea 2 aste inguru egongo da zabalik.

“Programa hori Udalak gazteekiko, eta, zehazki, Laudioko eta, oro har, eskualdeko gazteen enpleguaren arazoarekiko konpromisoaren, emaitza da”, aurreratu du Ander Añibarro alkateak.

Zehatzago esanda, hiru zerrenda jarriko dira martxan: bat administrarentzat, beste bat peoi espezialistentzat (obretako langileak), eta beste bat mendeko langileentzat (atezaintza eta harrera, langile laguntzaileak, etab.). Ekimen hori

2019an deitutako Lan Eskaintza Publikoan lanean jarraitzen den bitartean jarriko da abian, eta 2022. urteari dagokion Eskaintzaren bitartez lanpostu gehiago gehituko zaizkio.

“Estatuan duela denbora gutxi onartu den lege berria administrazio guztien EPE prozesuak atzeratzen ari da, baina lanean jarraitzen dugu lanpostu berriak sartzeko eta prozesuak gauzatzeko”, ondorioztatu du Alkateak.